

ANTROPOLOGIA • Anuntxi Aranaren 'Mito hurbilak'

Mitoak mitoen gain

Aranak gure mitologiaren eraginaren irakurketa plazaratu du

Gure mitologiari buruz hain entzuna dugun Mariren izaera gorena zalantzan jartzen du Anuntxi Arana antropologoak. Ez da hori plazaratu berri duen liburuan zalantzan jartzen duen gauza bakarra...

Amagoia Iban • Donostia

ANUNTXI ARANAK URTEAK daramatza euskal mitologia aztertzen. Duela lau urte horrexen inguruan aurkeztu zuen hain zuen ere bere doktore tesia, *Orozko haraneko kondaira mitikoak* (EHU) izenpean argitaratua izan zena. *Bidarraiko Harpeko Saindua* lana ere plazaratu du, Cerquanden ipuinen edizioa bideratzeaz gain. Aurkeztu berri duen *Mito hurbilak. Euskal mitologia jendeen bizitzan* liburua, jardun horretako beste urrats bat dela ulertu behar, beraz, egileak berak dioen bezala: «Aspaldi hasi nintzen mitologian lanean. Materiala bildu eta aztertu egin dut. Lan gehiena, nahi baduzu, duela lau urteko tesia egitean osatu nuen».

Tesi hartan jada, ondorio garbia atera zuen: «Euskal Herrian izan dela mitologia autoktono bat, erlijioak betetzen dituen funtzioak betez». Jendeari bizitza eta mundu ikuskera interpretatzeko sinbolo sistema bat eskaintzen ziola mitologiak, alegia. «Eta garai batez praktika eta egitura sozial bat izan zuela».

Egun antzinako mitologia ezagutzeko dagoen jakinmina normala iruditzen zaio antropologo

honi. «*Mito hurbilak* deitu diet nire ustez gaurko kezakak ere adierazten dituztelako eta gogoeta eragiten digutelako. Horregatik haien edertasunak hunkitzen gaitu, eta ulertzen dugu haien mezua eta mundu ikusmoldea. Oraindik bizirik dira sinbolo haiek». Euskal Herriko kasu zehatzean, gure antzinako mitologiara hurbiltzeko behar politiko bat ba omen dugu gainera ziur aski. «Gure iragana ezagutzeko beharra dugu, gure diferentziak markatzeko ere bai agian, eta zilegi da. Herri bakoitzak ditu bere mitoak, egun ere baliagarriak zaizkionak, etorkizunari begira ere, eta guk ezagutu nahi ditugu geureak aukeratu ahal izateko».

Mari berria?

Gurean erlijio funtzioak bete ei zituen praktika eta sinbologia sisteman Mari mailarik goreneko irudia ote zen, ezetz pentsatzen du antropologo honek: «Mari orain egin da

gorena, mitologia bere modu tradizionalean pixka bat itzaltzen ari denean. Beharbada, Barandiaran ez geroztik». Dibinitate nagusirik ote zen ere zalantzan jartzen du, zenbait zonaldeetan Anderea garrantzitsua izan arren, ez baita bakarra, eta «nik ez dut hierarkiarik sumatu» esanez adierazi du zalantza hori.

Kristautasunaren eta euskal mitologiaren arteko interaktibitateari buruz, bertako mitologiak uste baino eragin gehiago izan zuen Aranaren iduriko. «Gure izaki mitikoak beti bikoitzak izan direla uste dut, onak eta txarrak. Eliza etorri zenean, onak txarretatik bereizten saiatu zen, eta ez dut uste lortu zuenik». Gure kondairatako Ama Birjina, adibidez, ez omen da inondik ere kristauena bezalakoa —«bikoitza da, ez ona bakarrik, laminak bezala»—. Herriko tradizioan, eredu autoktonoak luke irabazi beraz. Teologiaren arloan bestelakoa omen litzateke.

Emazteak euskal mitologian eta Euskarazko hitz generodunak eta ahoko tradizioa atalak nabarmendu ditu Aranak azkenik. «Gauza inportantea iruditzen zitzaidan

behin *Emazteak euskal mitologian* bideratu ostean, euskarak generoei egun egiten dizkien keinuak azaltzea».

Gure antzinako mitologian ez omen du matriarkatuaren aztarnarik ikusi oro har. «Salbuespenak badira, baina gehienetan egun jendartearen agertzen diren harreman berak dira, emakumea azpian». Euskara sexista dela dio: «Gaur egun dugun hizkuntzaz ari naiz bereziki. Baina badugu libertatea hizkuntza beste modu batez erabiltzeko».



• BEGI ERTZETIK

Begia. Denek bi begi aurpegian. Baina ez gauza berei begia ematen denek. Eta berberei begiratuagatik, zein diferente ikusten ditugun! Denek bina (begibakarrak salbu), baina ezin konta ahala begirada. Bihotzak adina. Begitik begira, sekulako amildegia. Gurean, bereziki, hori hala dela erakusteko etsenplurik ez dugu falta.

Matias Mujikarekin solastu naiz goiz partean. Sekuoia baten gerizean, sagar bat erdi bana jaten genuen bitartean.

Goitixeago nioena, Matiasen prentzako azkeneko

MIKEL
TABERNA
IDAZLEA

idazkia, gutako batzuei
iruditu izanen zaie
azkonak erdiko
puntuan jo duela;
bertze batzuek,
berriz, pentsatu
izanen dute azkon
horiek pozoituak
zeudela, zitalkeria zeriela

Begitik
begira

haren hitzei. Diferente

pentsatzen duenari gehienetan borondate gaiztoa harrapatzen diogu. Niri beti iruditu zait onargarria ez ezik beharrezkoa ere kritika. Autokritika ere bai (edo are gehiago), jakina. Akort nahiz kontra izan. Azpilanik barik, jokoaren arau oinarritzkoenak betetzen baldin badira, behinik behin.

Sorgin-ehiza dirudien denbora honetan egina izateaz eta zekarren mamiaren gainerakoaz aparte, errepara diezaiogun hasieran erraten zuenari, «bereizten gaituzten kontuez aritzeaz gainera, hori ere beharrezkoa dela ukatu gabe, uste dut kasu gehixeago egin beharko geniokeela denok edo gehienok ados gauden bestelakoei». Horiek ez dira inori min egiteko harriak. Horiek zubiak (badakit poliki mendratu dela hitz honen balioa azken aldi honetan) eraikitzeak dira.

Uste dut Matiasen arrenkuren arrazoietakoa batzuk Saizarbitoriaren 'Aberriaren alde (eta kontra)' liburuan aurki daitezkeela, esplikatzen duenean euskal kulturatik urruntzen direnen kasua. 'Euskal kulturaren ajeak ezkutatzeak ahalegin ezinezkoa' izendatzen duen atalean, «etxe desberdin askotako jendeak osatzen duen unibertsoa» garela dio, eta hori onartu behar dela, «gure ahultasunaren adierazpenak, gure kontra erabil daitekeen neurrian, izutu egiten bagaitu ere». Ados, kontu gehienetan, idazlearen iritzi «halabeharrez kritiko» horiekin, baten bat haserretzen ahal zaiola jakinik idatzi duen lan horretan.

Begi ertz honetatik ikusten dudaren arabera, begi guzien begirada oro biltzeak kaltearen partez on baino ezin digu egin. Begirik inori ateratzeko (begia begi truk hasi gabetanik). Begiramenez, ahal dela. Sanferminetan (zergatik ez maizago?) agian egingen baitugu topo, honatx nire kopa: topa!

